

PRESTAKUNTZA PLANA 2018/2019

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

“Baratze ekodidaktikoak: ikasteko haziak”

Modalitatea: Mintegia

Eta: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza

Parte-hartzaileak: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Deitzailea: Iruñeko ILZ

Justifikazioa:

Egun hiriko baratzeak ugaltzen ari dira, ekimen pribatu edo kolektibo gisa. Hiriko baratzeak jartzeko joera gero eta handiagoa da eta joera horretan hezkuntza komunitateak ere egin du bere ekarpena; izan ere, bere ekimenez **eskola baratzea hartu du diziplina anitzeko hezkuntza-baliabide integratzaile gisa**. Testuinguru horretan, mintegi hau gero eta handiagoa den errealitateari erantzuteko tresna da.

Helburua/k:

- Baratzeari buruzko ikuspegi orokorra ematea: bereziki eskola baratzea eta haren balioa baliabide pedagogiko gisa.
- Tresnak eskuratzea baratzeekin lotura duten jarduerak curriculumean sartzeko, baratze ekodidaktiko bihurtze aldera, diziplina anitzeko ikaskuntza-espazio proaktibo gisa.
- Ikasitako ezagutzak abian jartzea.

Edukiak:

- Baratzea: nekazaritza ekologikoaren printzipio orokorrak, baratzea zaintzeko eta mantentzeko lan nagusiak.
- Baratzearen inguruko jarduerak proposatzea, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasmaita guztietako ikasleei zuzenduak.

Metodologia:

Mintegiak sarrera teoriko praktikoa izanen du eta hortik abiatuta, parte hartzen duten irakasleek taldeka landuko dituzte proposamenak baratzeari lotutako jarduerak Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan zehar curriculumean sartzeko.

Hizlaria/k:

Sara Nieto, Ana Dominguez eta Gurutze Santxo

Arduraduna:

David Fernández Pérez, Aholkularitza Zientifiko-teknologikoa
848 43 03 94, naturales.cap.pamplona@educacion.navarra.es

Tokia:

Ingurumen Heziketarako Museoa (Errotazarko kalea, z.g.)

Datak:

- **Euskara:** Azaroaren 6an, 13ean eta 20an. Apirilaren 9an.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara

Iraupena: 10 ordu (8 bertan egoteko eta 2 ordu banakako lanerako)

Plaza kopurua: 30

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 12

Izena emateko epea:

Izena emateko azken urriaren 31ea eguna da. Esteka honen bitartez egin behar da:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/inscripciones-3/>

Hautatzeko irizpideak:

- Lehenetsunez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak onartuko dira, ikastetxeak Jasangarritasun Eskolen Sarekoak badira, izen-emateen hurrenkeraren arabera.
- Bigarrenik, prestakuntza egiteko aukera izanen dute beste ikastetxe batzuetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak, izen-emateen hurrenkeraren arabera.
- Toki hutsik balego, beste etapa batzuetako irakasleak onartuko lirateke, izen-emateen hurrenkeraren arabera.

Hizkuntza: Euskera

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabilitzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educacian ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan: <http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Ziuertagiriaren kudeaketarekin sortzen diren galderak ILZ-ko idazkaritzan erantzunen dira; Telef: 848 424775, 848 424776, 848 426232; secretaria.cap.pamplona@educacion.navarra.es.

- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako 35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.
- PNTEn urrutiko prestakuntzako ikastaroei dagokienez, ikastaroa hasten den egunetik 15 eguneko epean irakasleak ez badu "Nahitaezko lana: aurkezpena" izeneko egin eta entregatzen, automatikoki baztertuko da ikastarotik. Baztertuz gero, gorago aipatutako zehapen-prozesu bera aplikatuko zaio.
- Prestakuntza jarduneko irakasleek soilik egin dezakete eta haiei baino ez zaie ziurtatuko; salbuespena amatasun, adopzio edo harrera-lizentzia duten irakasleak dira, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuan ezarri bezala. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktikoa egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.